

BATERALABS-EN DONOSTIALDEKO ESKUALDEKO 2. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko ekainaren 22a (astelehena)

Lekua: The Social Hub, Donostia, Gipuzkoa

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Donostialdeko** herritarren partaidetza-laborategiari jarraipena ematea izan zen. Laborategi horren xedea da klima-aldaketaren aurrean eskualdearen errealitatera egokitutako irtenbideak sortzea, herritarren parte-hartzearen bitartez. Bigarren saio honen helburu nagusia aurreko saioan identifikatutako erronkak eta problematikak lantzea izan zen, hautemandako erronkei erantzuteko proposamen zehatzak elkarlanean garatuz.

Saioak aukera eman zuen **parte-hartzaileek lehenetsitako jarduera-eremuetan sakontzeko**, irtenbide posibleak definitzeko, inplikaturako eragileak identifikatzeko eta etorkizunean gauzatzeko lehen jarduera-ildoak ezartzeko. Horretan guztian udal eta eskualde mailako erakundeetako ordezkariak, auzo-elkarteak, sektore-elkarteak eta klima-aldaketaren aurrean eskualde jasangarriago eta erresilienteago bat eraikitzen lagundu nahi duten herritarrek parte hartu zuten.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduradunak:** Iñigo Garcia, Donostiako Ingurumen zinegotzia eta José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Saioa Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ongi-etorri hitzekin hasi zen. Bertan, eskerrak eman zitzaizkien parte-hartzaileei BateraLabs prozesuan parte hartzen jarraitzeagatik. Era berean, lehen saioan egindako

lana nabarmendu zen, baita bigarren jardunaldi honen garrantzia ere, Donostialdean identifikatutako klima-erronkei erantzuteko proposamenak elkarlanean garatzeko.

2. Lehenengo saioan identifikatutako erronken itzulketa (5 min)

- **Arduradunak:** Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Lehen saioan identifikatutako erronkak eta planteamenduak aurkeztu ziren, eskualdean jarritako postontziaren eta bateralabs.eus webgunearen bidez jasotako ekarpenetan oinarrituta. Era berean, erronkak gai-ardatzen arabera aurkeztu ziren, eta kolektiboki identifikatutako problematikak modu bisualean erakusten zituzten mapak aurkeztu ziren.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (5min)

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: saioan lantzeko erronkak eta planteamenduen lehenengo lehenespena egiteko erabilitako irizpideen eta dinamika parte-hartzaile desberdinen azalpena, hala nola, lehentasunak eta proposamenak batera sortzeko lana.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Saioa jardunaldian landuko ziren erronkak eta planteamenduak hautatzeko prozesuaren azalpenarekin hasi zen. Lehenengo saioan jasotako ekarpen kopuru handia zela eta, aurretik antzeko proposamenak araztu eta taldekatu ziren, bikoiztasunak ezabatuz eta gaika antolatuz.

Ondoren, proposamenak hiru irizpideren arabera aztertu ziren: irizpide teknikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekin bat zetoze baloratzeko; irizpide politikoa, Jasangarritasun Departamentuaren ildo estrategikoekin lerrokatuta zeudela balioztatzeko; eta irizpide ekonomikoa, aurreikusitako aurrekontuarekin eskualde guztietan proposamenak garatu ahal izatea kontuan hartuz.

Ondorioz lortutako erronkak eta planteamenduak parte-hartzaileei aurkeztu zitzaizkien, eta haiek kolektiboki lehenetsi zituzten, saioan landu beharreko ardatz tematiko bakoitzeko erronka bat hautatzeko.

Ostean, parte-hartzaileak ga-ardatzetan antolatutako lan-mahaietan banatu ziren, eta, lan-fitxen laguntzaz egindako ko-sorkuntza dinamika baten bidez, hautatutako erronketan sakondu eta horiei erantzuteko proposamen zehatzak garatu zituzten.

Azkenik, landutako proposamenak partekatu egin ziren eta lehentasun-ariketa bat egin zen, parte-hartzaileen ustez garrantzitsuenak edo premiazkoenak zirenak identifikatzeko. Azpimarratu zen leheneste horrek ez zuela izaera loteslerik eta ez zuela suposatzen garatuko diren proiektuen behin betiko hautaketa. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat balorazio-elementu gehigarri bat da, ondoren egingo diren azterketa teknikoarekin eta bideragarritasun-azterketarekin batera. Saioan sortutako proposamen guztiak prozesuaren azken portafolioan jasoko dira.

Jarraian, lan-mahaietan landutako proposamenak jasotzen dira, azken lehentasun-ordenaren arabera.

1. OSASUNA: ATERPE KLIMATIKOAK

Mahaiaren informazioa

Gai-ardatza: Osasuna

Landutako erronka: Hiri-beroa. Berdeguneen eta aterpe klimatikoen sare egituratu baten gabezia.

Proposamenaren garapena

Arazo zehatza: Ez jakitea aterpe klimatiko bat zer den, zertarako balio duen, larrialdietan nola erabiltzen den edo non dauden. Era berean, protokolo baten falta identifikatu zen.

Proposamena: Aterpe klimatikoa bat zer den definituko duen eta espazio horiek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarriko dituen protokolo bat garatzea. Halaber, larrialdi mota desberdinak bereiztea, seinaleztapena, irisgarritasuna, ordutegiak eta bestelako alderdiak jasotzea proposatzen da. Gainera, dagoeneko existitzen diren aterpe klimatikoak berrikustea planteatzen da.

Kokaleku posibleak:

- Elizak
- Ekipamendu eta lokal publikoak
- Beste komunitate-espazio batzuk

Onuradunak:

Gizarte osoa, nahiz eta bereziki pertsona kalteberen arreta lehenetsi beharko litzatekeen.

Proposatutako urratsak:

- Aterpe klimatiko mota desberdinak definitzea.
- Irisgarritasun-irizpideak ezartzea.
- Hiri-berdeguneak handitzea.
- Hiriko ur-puntuen sarea zabaltzea.
- Aterpe klimatiko eguzki-plakak jartzea.

2. HIRI BERRONERATZEA: Hiri-inguruko uramel eta ur-biltefien birnaturalizatzea

Mahaiaren informazioa

Gai-ardatza: Hiri berroneratzea.

Landutako erronka: Hiri-ingurune urmael eta ur-biltegiak birnaturalizatzea, tigre-eltxoak eta bestelako espezie gatazkatsuen ugaritzea saihesteko.

Proposamenaren garapena

Arazo zehatza: Hiri-urmaelak klima-aldaketara egokitzeko elementu erabilgarriak dira, baina larbak garatzeko baldintza egokiak eskaintzen dituztenez, eltxoen ugaritzea erraztu dezakete.

Proposamena: Hiri-urmaelak naturalizatzea, fauna autoktonoa sustatzeko eta espazio horien oreka ekologikoa hobetzeko.

Kokalekua: Hiriguneetan eta baratzeetan.

Onuradunak: Hiriko herritarrak eta bertako biodibertsitatea.

Espero diren onurak:

- Eltxoen ugaritzea murriztea.
- Tokiko biodibertsitatea handitzea.
- Hiri-ingurunearen kalitate ekologikoa hobetzea.

3. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Mahaiaren informazioa

Gai-ardatza: Mugikortasun jasangarria.

Landutako erronka: Kutsadura.

Proposamenaren garapena

Arazo zehatza: Ibilgailu gehiegi daude, askotan zaharrak eta okupazioa txikia izaten da. Horrez gain, probintziaren, hiriaren eta auzoen arteko konektibitate eskasa dago, eta garraio publikoarekin lotutako aparkaleku disuasorioen gabezia ere nabarmendu zen.

Proposamena: Antzeko joan-etorriak dituzten pertsonak konektatuko dituen komunitate-carsharing sistema bat sortzea, mugikorreko aplikazio baten bidez, bereziki lanerako joan-etorrietan. Horrek mugikortasunaren konektibitatea eta gizarte-kohesioa indartuko lituzke.

Lehentasunezko udalerriak:

- Donostia
- Irun
- Tolosa
- Astigarraga

Inplikaturako eragileak:

- Herritarrak.
- Administrazio publikoak.

Beharrezko ekintzak:

- Mugikortasunari buruz dauden azterketetatik abiatuta, aplikazioa diseinatu eta garatzea.
- Herritarren parte-hartzea sustatu eta dinamizatzea.

4. KOMUNITATE ENERGETIKOA

Mahaiaren informazioa

Gai-Ardatza: Gobernantza

Landutako erronka: Klima aldaketa borrokatzea

Proposamenaren garapena

Arazo zehatza: Donostiak kanpoko energia-iturriekiko mendekotasun handia du.

Proposamena: Eguzki-plakak dituzten estalki artifizialak jartzea bidegorrietan, oinezkoentzako eremuetan eta beste espazio publiko batzuetan. Energia berriztagarria sortzeaz gain, egitura horiek babesleku gisa funtzionatuko lukete muturreko fenomeno klimatikoen aurrean. Sortutako energiak energia-komunitateak hornitu ditzake. Herriarteko bidegorrietan pilotu bat egitea proposatzen da.

Onuradunak:

- Energia-sareari atxikitako komunitateak edo herritarrak.
- Familiak.
- Txirrindulariak.

Inplikaturako eragileak:

- Administrazio publikoak.
- Ikastetxeak.
- Energia-enpresak.
- Komunitate energetikoak.

Beharrezko ekintzak:

- Proiektu pilotua abiarazteko espazio bat definitzea.
- Herrera eta Trintxerpe arteko bidegorria proposatzen da.

5. EKONOMIA ZIRKULARRA: PLASTIKOEN MURRIZKETA

Mahaiaren informazioa

Gai-ardatza: Ekonomia zirkularra.

Landutako erronka: Hondakinen murrizketa.

Proposamenaren garapena

Arazo zehatza: Jai eta jaialdietan erabilera bakarreko plastikoen gehiegi erabiltzea.

Proposamena: Jai eta kultura-ekitaldietarako protokolo bat egitea, plastikoen erabilera %50 murrizteko.

Proposatutako neurriak:

- Plastikoen erabilera murrizten edo ezabatzen duten erakundeentzako udal-dirulaguntzak ezartzea.
- Sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak sustatzea.
- Ohiko merchandising-aren alternatiba jasagarriak bultzatzea.

5. Itxiera

Arduraduna: José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.

Deskripzioa: Saioari amaiera emateko, eskerrak eman zitzaizkien parte-hartzaile guztiei prozesuan zehar erakutsitako parte-hartzeagatik, inplikazioagatik eta egindako lanagatik. Era berean, jardunaldian garatutako proposamenen kalitatea eta herritarrek eskualdeko klima-erronkei erantzunak bilatzeko egindako ekarpena nabarmendu ziren.

Azkenik, jakinarazi zen prozesuaren azken saioan Gipuzkoako eskualdeetan garatzeko hautatutako proposamenak aurkeztuko direla, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagozkion azterketa teknikoak eta bideragarritasun-azterketak egin ondoren.